

Ainhoa Urienek (Abadiño, Bizkaia) 2020an plazaratu zuen saiakera bat Pamielan, Xabier Leteren poesiaren inguruan: *Poesia zaurien ukendu* (Xabier Leteren arrastotan). Arabako Foru Aldundiko Ignacio Aldekoa beka irabazi zuen ipuin modalitatean, eta horri esker, aurrera atera ahal izan du *Ehun zaldi trostan*, Elkarren, lehenengo fikziozko lana narratibogintzan.

Ehun zaldi trostan, zazpi ipuinak autonomoak dira, bai, baina ez guztiz. Batzuk besteak baldintzatzen dituzte, batzuen eta beste artean hariak luzatzen dira, eta dituzten elkarreraginez ohar-tuko dira irakurle arretatsuak; grabitate puntuak dira, batzuk besteekiko. Eleberri laburrak edo eleberriak izan zitezkeen pasarteak dira, ipuinak izateaz gain. Horrela, hainbat nobela batean harilkatu ditu Urienek, eta hari oso fin eta ikusezinez harilkatu ere. Interakzio horretan, pertsonaiak ipuinak zeharkatzen dituzte, batetik bestera pasatzen dira, eta batean protagonistak direnak, besteetan bigarren plano batean agertzen dira. Pertsonaiak errepikatzen dira ardatz bat dagoelako.

Hasierako ipuinari esker gainerakoak kontzebitzeko bulkada izan zuela adierazi du elkarriketa batean; lehenengo idatzi hurak lurrikara baten moduko lurrin-presioa sorrarazi ziola. Abiadura lasaiko narratioak dira, seguru asko lehenik eskuz eta astiro-astiro idatzitakoak. Ziur nago luze egon dela Urien pixkanaka-pixkanaka ipuinak berri-dazten. Estilo oso pertsonalekoak, denak; landuak, trebetasunez txirikordatuak, eta euskara dotore baten jabe direnak. Ipuinak baino atmosferak dira, benetan ukigarriak, ia dastatu daitezkeenak. Estiloa, beraz, mugikorra da, istorioaren arabera, nahiz eta lirikotasuna izan nagusitzen den ezaugarrienetako bat. Zer kontatuko duenaren arabera tonua



Ainhoa Urienek bere lehenengo fikziozko lana atera du Elkarrekin: *Ehun zaldi trostan*

egokitzen du, arinago edo biziago eginez, edo deskriptiboagoa, esaldi luze eta korapilatsuen birtatez, zuzenagoa edo gogoatsuagoa, gaiak eskatzen badu. Argi dauka idazleak ze generotan kokatzen den liburua, baina generoaren arau hertsatzaileetatik urruntzen da, era berritzaile eta askatzaile batean.

Kontakizun gehienetarako hiru garren pertsona hautatu du, bitan izan ezik: *Olinpiadek lasaitu egiten naute* (lehenengo pertsona mintzatzen da) eta *Atzera*

kontaketa bat katastrofera. Azken hau ez da erabat egokitzen gaitortzekoetara. Fabula politikoa da, eta liburuaren barne koherentzia apurtzen du. Orwellen Abereen etxaldea ekarri dit gogora; animalia espeziak haien arteko nolako harremanak eratzen dituzten arabera, botere eskala bat eraikitzen da.

Ez da idazkera batere zalantzatua Urienek darabilena: prosak sendotasuna erakusten du, are gehiago lehenengo lan bat izateko. Kontalari baten edo beste-



Usainek identitatea sortzeko ahalmena dute, lekuetara lotzen gaituztelako, beste zentzumenak baino errazago

ren hautaketa ez dirudi, hain zuzen, aurrez pentsatutako gauza denik, kasualitatezkoa baino, testuak, zuzenean, idatzi eta garatutakoan eskatu diona. Intuizioa, beraz, liburuaren motorretako bat da. Intuizioa, eta sentsibiltatea, alegia.

Gai oinarritzkoenak identitatea eta jatorriarena dira. Baita belau-naldi-artekotasuna ere. Eta, noski, herria –edo, zehatz-mehatz, baserria– eta hiria diren bi munduren arteko talkarena. Batetik bestera doan bidea da liburua; ihesirako bidea, batzuetan, eta itzulerakoa, besteetan. Ez dira, oster, inola ere kontrako esparruak, baizik eta osagarritzkoak, hibridazioan daudenak, azken batean, behin eta berriz elkarrekintza baten grabitatean dabil-tzanak.

Izenburua dena bada ere ia ez da agertzen zaldirik liburuan. Ezta portadan ere; aldiz, eulien zinta bat, baserrietako nahiko elementu bereizgarria, da azaltzen dena. Irakurleak barruan aurkituko duenaren aurrekaria, egiazki. Galdera erraza da, orduan: zenbateraino dauden atzitura pertsonaiak egoera edo sentazio batzuetara? Betiko espazioei fidelak, haietatik urruntzerakoan ere. Sakabanatzen di-

ra, hedatu, zatikatu. Anibalentzia baten aurrean daude: bi momento, bi tokien artean.

Han nonbait aipatzen da; Pedro Páramo. Eta egia da zeozet dutela hemengo giroek Comalatic, mamu-herriaren itxura bat behintzat bai antzematen dela hainbatetan. Idazleak garatutako sentsorialtasunerako joerak altxatutako sareak babespe ikaragarria ematen die pertsonaiei. Gehienek identitate bat bilatzen ari dira. Iraganean utzitako nortasunaren bat, edo guztiz berria den baten eske. Eta zeregin horretan diharduten bitartean, nahitaezkoa zaie espazio propio bat izatea da, babesleku bat, etxe bat. Ez bakarrik etxe fisikoa, baizik eta usainez edo bestelako zentzumenez, sinbolikoki egini-ko etxea. Usainek identitatea sortzeko ahalmena dute, lekuetara lotzen gaituztelako, beste zentzumenak baino askoz errazago gainera. [Denak du usaina baserrian, usain sarkorra gehienetan. Simaur usainak sudur-zuloetan azkura eragiten du udan, animalien pixa eta kaka hondarren nahasketa ukiulutik atera eta belazeak ongarritu behar diren sasoian. (85.orr)]

Dualismo horretan mugitzen da liburua, dagoenaren eta ez dagoenaren artekoan, kontatzen ez dena kontatzen dena bezain inportantea delarik. Izaera den itzala zeharkatzen datozen alegiazko zaldi fantasmagoriko, astun baina arinen hankak garenaren hautsa astintzen dute, bideak zabaltzen dituzte gure aurrean, baina bakarrik iraganetik askatu ezinik bagabiltza; trosta oihartzunez egina dago, ahotsez, zaratez; atzetik aurrerako mugimenduez.

Aitor Francos

El quiebre de la voluntad

Un cartel a la entrada del convento advierte: no se admiten seculares. El internado británico Convento de las Cinco Llagas hace gala de su atmósfera autoritaria incluso antes de que uno ponga un pie en él. Nanda Grey, una niña de nueve años, hija de conversos, ha abrazado el catolicismo con un fervor precoz y accede a este microcosmos opresivo ardiendo en un agonizante deseo de ser como las demás. A pesar de ser una de esas alumnas que no puede evitar portarse bien, las monjas le recordarán constantemente que la obediencia va más allá de la intención. En Lippington, donde cada sala está bautizada con el nombre de un santo, una genuflexión con un desvío de

medio centímetro ya es motivo para recibir de pulla sibilina.


Antonia White maneja el lenguaje con la precisión de un bisturí en *Helada en mayo*, publicada en 1933. De alto contenido autobiográfico –ya que la propia autora estuvo interna en un convento del que fue expulsada a los quince años, una experiencia que la marcaría de por vida–, la difusión de la novela provocó un terremoto en la época de entreguerras. La editorial Impedimenta rescata ahora esta joya (prácticamente desconocida para el público hispano), de estilo pulcro y minimalista, que recuerda a las obras de corte *bildungsroman* más tradicionales, si bien en esta ocasión se lleva a cabo a través de la experiencia fe-

menina. Su aportación a la literatura ha sido interpretada como precursora de novelas como *La campana de cristal* de Sylvia Plath.

En las Cinco Llagas, donde no se fomentan las amistades entre niñas, todo son normas. Una delegada debe controlar que las conversaciones no sean demasiado enfáticas ni mundanas. “El mundo sobreprotegido, letárgico, esnob, autoritario y sensual-espiritual del convento escuela parece estar a años luz del Reino Unido del siglo XXI”, asevera la escritora Tessa Hadley en la introducción a la novela ambientada a comienzos del siglo pasado. En ese contexto, Nanda es incapaz de diferenciar qué opción es preferible: si la idea del peligro infernal o la perspectiva de ha-

cerse monja, porque las religiosas, con su comportamiento cruel y mezquino, le dejan claro que trabajan para formar no a jovencitas bien dotadas ni esposas afables, sino a soldados de Cristo.

Nanda Grey se cobija en la literatura y en otras niñas, las menos pacatas y propensas a la sumisión, mientras va cumpliendo años y descubriendo emociones que, repentinamente, la embarcan sin que pueda evitarlo. Su amiga Léonie de Wesseldorf alienta que su intelecto no se condicione por las estrictas creencias de las monjas, al garantizar que no existe una prueba racional de la existencia de Dios, al menos ninguna que tenga sentido para un filósofo. A medida que avanza el relato, la sombra



del pecado acecha en cada página de esta sutilísima novela en la que su protagonista, desde el juicio del catolicismo, siembra una pequeña semilla de autodeterminación y amor propio que impiden que su voluntad se quiebre del todo, como la fe exige a todo devoto consagrado.

Ane Araluzea